

PRENTSA OHARRA: 2026.07.09

Etxepare Euskal Institutuaren Irakurleen IX. Topaketak 14 herrialdetako unibertsitateetako euskara eta euskal kulturako irakasleak bilduko ditu bihar Donostian

-Europako eta Ameriketako unibertsitateetan diharduten 18 irakurlek esperientziak eta jardunbide egokiak partekatuko dituzte, eta nazioarteko testuinguruetan euskara eta euskal kulturaren irakaskuntzak dituen erronkei buruz hausnartuko dute

- Topaketaren egitarauaren barruan, Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburu Ibone Bengoetxearekin ere bilduko dira

Donostia, 2026ko uztailaren 9a. – Munduko hainbat unibertsitateetan euskara eta euskal kultura irakasten duten irakasleek —irakurleak hizkera akademikoan— hitzordua izango dute bihar Donostiako Tabakaleran, Etxepare Euskal Institutuak antolatutako Irakurleen IX. Topaketan. Guztira, Europako eta Ameriketako 14 herrialdetako unibertsitateetan lanean diharduten 18 irakasle elkartuko dira, ikasturtean zehar garatutako esperientziak eta abian dituzten proiektuak partekatzeko, jardunbide egokiak trukatzeko eta nazioarteko testuinguruetan euskara eta euskal kultura irakasteak planteatzen dituen erronkei buruz hausnartzeko.

Topaketan parte hartuko dutenak Chicago, Edinburgo, Varsovia, Habana, Leipzig, Helsinki, Bologna, Paris, Frankfurt edota Poznan bezalako hirietako unibertsitateetan dihardute. Goizean zehar, esperientziak partekatzeko eta eztabaidarako saioetan parte hartzeaz gain, Etxepare Euskal Institutuak euren jardunean erabiltzeko eskura dituen tresna eta baliabide digitalak ere ezagutuko dituzte. Era berean, Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburu Ibone Bengoetxearekin bilduko dira, nazioarteko unibertsitateetan egiten duten lana partekatzeko.

Jardunaldian parte hartuko dute, halaber, Etxepare Euskal Institutuko zuzendari Irene Larrazak eta Euskara Sustatu eta Hedatzeko zuzendari Monika Madinabeitiak.

Irakurleen IX. Topaketak amaiera emango dio unibertsitate-sarea sendotzea eta irakasleen etengabeko prestakuntza sustatzea helburu duen hiru eguneko programari. Prestakuntza zikloa uztailaren 8an hasi zen, Euskal Herriko Unibertsitatearen Udako Ikastaroen (UIK) baitan antolatutako 'Bikaintasuna Euskal Ikasketetan XVI. Euskara oholtzetan: musika, hizkuntza, nazioartea' ikastaroarekin.

Euskara eta euskal kulturarentzat sare estrategikoa

Etxepare Euskal Institutuak euskara eta euskal kulturaren irakaskuntza sustatzen du nazioarteko unibertsitateetan, euskal ikasketen presentzia eta prestigioa indartzeko helburuarekin. Erreferentziazko unibertsitateekin sinatutako lankidetzak-hitzarmenen bidez, euskararen eta euskal kulturaren nazioarteko proiektzioa sendotzen du, eta hizkuntza eta kultura ezberdinen arteko elkarrizketa akademikoa sustatzen laguntzen du.

Gaur egun, Institutuak mundu osoko 33 unibertsitatetan irakurletzak sustatzeaz gain, nazioarteko 12 katedra eta 3 ikerketa programa ere bultzatzen ditu. Sare horren bidez, euskara eta euskal kultura nazioarteko goi-mailako irakaskuntzan eta ikerketan txertatzen laguntzen du.

2018az geroztik urtero egiten den Irakurleen Topaketaren helburua da sare estrategiko hori sendotzea, esperientziak eta jardunbide egokiak partekatzea eta euskara eta euskal kulturaren nazioarteko ordezkari diren irakurleen etengabeko prestakuntza bultzatzea.

Etxepare Euskal Institutua

Etxepare Euskal Institutua Eusko Jaurlaritzaren erakunde publikoa da. Euskara eta euskal kultura eta sorkuntza nazioartean proiektatzeko, eta horien bidez beste eskualde, herrialde eta kultura batzuekin harreman iraunkorrak eraikitzeko egiten du lan. Horretarako, kalitatezko jarduera artistikoak sustatzen ditu, eta kulturaren alorreko sortzaile, artista eta profesionalen mugikortasuna bultzatzen du. Euskal ikasketak ere bultzatzen ditu eremu akademikoan. Era

berean, nazioarteko eragileekin lankidetza sustatzen du, bai kulturaren arloan, bai esparru akademikoan.

Info +

Komunikazio saila
Etxepare Euskal Institutua
Tabakalera | Andre Zigarrogileen plaza, 1
Donostia / San Sebastián
T: 943 023 400 / M: 688 670 217
komunikazioa@etxepare.eus

www.etxepare.eus